# Xedapen Orokorrak

## OSASUN SAILA LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-2355

76/2002 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko dena.

Jarduera sanitarioek sortzen dituzten hondakinek eta horiek berekin dakartzaten arriskuek ezinbesteko egiten dute haien ekoizpen eta kudeaketarako kontrol eraginkorren beharra. Kudeatze behar horrek erabat arduratzen gaitu; oso kaltegarriak baitira hondakin horien eragina, batez ere, osasun publikoan eta ingurumenean sor ditzaketenak.

Horiek horrela, osasun publikoa babesteko eta ingurumena aldezteko, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko den abenduaren 24ko 313/1996 Dekretua onartu zen. Dekretu horrek ondokoa zuen helburu nagusi: jarduera sanitarioek sortutako hondakinak zuzen kudeatzea, bai zentro barruetan, bai zentrotik kanpo, hondakinok beren arrisku-ezaugarrien arabera, ahalik eta egokien erabili eta deuseztatzeko. Horretarako, hau da, kudeatzealdietarako, hondakinak eta betebeharrak sailkatuko dira, baita, hondakin sanitariook direla eta, aplikagarri izango diren zenbait baldintza ezarri ere.

Dena den, 313/1996 Dekretuak xedatutakoaren eta hura indarrean jarri zenetik lortutakoaren garrantzia azpimarratzekoa bada ere, indarrean jarri zenez geroztik egun arte izandako eskarmentuak eta gai horren inguruan izandako aurrerapenek beharrezko egiten dute arlo horretan egungo irizpideekin bateratsuago datorren eta ordenamendu juridikoari gehitu zaizkion arauak kontuan hartzen dituen beste arauren bat ematea.

Ildo horretan, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak atentzio prebentiboa eta osasunaren sustapena, botere publikoen eskumen diren aldetik, Osasun Sailak bultzatu beharreko jardueratzat jotzen ditu, talde zein banakako osasuna-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### N°-2355

DECRETO 76/2002, de 26 de marzo, por el que se regulan las condiciones para la gestión de los residuos sanitarios en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Los residuos que se generan en las diferentes actividades sanitarias y los riesgos que ellos conllevan, determinan la aplicación de controles eficaces sobre su producción y gestión. Esta gestión es un asunto que preocupa considerablemente debido a los efectos negativos que de estos residuos se derivan, sobre todo, considerando aquellos que se pueden causar en la salud pública y el medio ambiente.

Por esta razón, y atendiendo fundamentalmente a los citados criterios de protección de la salud pública y de defensa del medio ambiente, se aprobó el Decreto 313/1996, de 24 de diciembre, por el que se regulan las condiciones para la gestión de los residuos sanitarios en la Comunidad Autónoma del País Vasco, incorporando mecanismos de gestión específica de estos residuos. El objetivo básico de la norma aprobada era el de conseguir una gestión correcta de los residuos generados en las actividades sanitarias, tanto en lo referente a la gestión en el interior de los centros como a la gestión extracentro, con la finalidad de garantizar el tratamiento y la eliminación más idóneos, en función de sus características de peligrosidad, estableciéndose una clasificación de los residuos y los requisitos para las diferentes etapas de la gestión y señalando una serie de condiciones de aplicación a todos los residuos sanitarios.

Sin embargo, y aún debiendo subrayarse la importancia de la regulación contenida en el Decreto 313/1996 y los resultados alcanzados en su aplicación, la experiencia adquirida desde su entrada en vigor y los avances registrados en esta materia, hacen conveniente la elaboración de una nueva norma que resulte más acorde con las directrices que, en la actualidad, inspiran las actuaciones en este campo, y tenga en cuenta las disposiciones normativas que se han incorporado al ordenamiento jurídico.

En este sentido, la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi recoge la atención preventiva y la promoción de la salud entre las actividades a desarrollar por el Departamento de Sanidad dentro de las potestades de intervención pública, en rela-

ri dagokionez, halakoxea baita hondakin sanitarioen gaia.

Bestalde, Hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legeak eta Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak bere egin dute hondakinei buruzko Europako Batasunak jarraitzen duen politika, eta lehentasuna eman diete ondokoei: prebentzioari, ahalik eta hondakin gutxien sortzeari, hondakinok berriro erabiltzeari eta baloratzeari eta, baloratze hori ezinezkoa denean, ahalik eta egokien deuseztatzeari.

Orobat, Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea gauzatzeko araudia onartzen duen 833/1988 Errege Dekretua aldatzen duen ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretua onartzeak aldaketa bat ekarri du hondakin arriskutsuen (hondakin sanitario espezifikoak barne) araubidean.

Azken batean dekretu honek bere egiten ditu hondakin sanitarioen kudeatze aurreraturako oinarrizko irizpideak eta, era berean, kontuan ditu Hondakinei buruzko Europako Katalogoan –CER delakoa– eta irailaren 11ko 1088/1992 Errege Dekretuaren zati bat aldatzen duen Hondakin Arriskutsuak Errausteari buruzko uztailaren 18ko 1217/1997 Errege Dekretuan jasotakoak.

Ondorioz, Osasun sailburuaren eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko martxoaren 26ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera sanitarioen ondorioz sortzen diren hondakin sanitarioen produkzioari eta kudeaketari aplika dakiokeen araubide juridikoa ezartzea da dekretu honen helburu, berorren bitartez osasun publikoa eta ingurumena babestu ahal izateko.

*2. artikulua.–* Definizioak.

Dekretu honen aplikazioaren ondorioetarako definizio hauek hartuko dira kontuan:

1.– Hondakin sanitarioa. Jabeak bere kabuz edo horretara behartuta botatzen duen edozein substantzia, baldin eta jarduera sanitario baten ondorioz sortua bada. Halaber, izaera hori berori izango dute Hondakinei buruzko Europako Katalogoan zerrendatutakoak.

ción con la salud individual y colectiva, como es la materia de residuos sanitarios.

Por otro lado, la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos junto con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, han venido a asumir las líneas básicas de la política comunitaria en materia de residuos, otorgando prioridad a la prevención y a la minimización en su producción, a la reutilización y valorización y a la eliminación adecuada de los mismos cuando tal valorización no sea posible.

Asimismo, la aprobación del Real Decreto 952/1997, de 20 de junio, por el que se modifica el Real Decreto 833/1988 por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986, de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos, ha supuesto un cambio en el régimen legal de los residuos peligrosos, incluyendo entre ellos a los residuos sanitarios específicos.

El presente Decreto hace suyos, en definitiva, los principios básicos inspiradores de la gestión avanzada de los residuos sanitarios y tiene, también, especialmente en cuenta el contenido del Catálogo Europeo de Residuos (CER), junto con el Real Decreto 1217/1997, de 18 de julio, sobre incineración de residuos peligrosos, que modifica parcialmente el Real Decreto 1088/1992, de 11 de septiembre.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Sanidad y de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de marzo de 2002,

DISPONGO:

## CAPITULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto el establecimiento del régimen jurídico aplicable a la producción y gestión de los residuos sanitarios generados en actividades sanitarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el fin de proteger la salud pública y el medio ambiente.

*Artículo 2.–* Definiciones.

A los efectos de aplicación del presente Decreto se entiende por:

1.– Residuo sanitario. Cualquier sustancia u objeto del que su poseedor se desprenda o del que tenga la intención u obligación de desprenderse, generado por actividades sanitarias y, en todo caso, tendrán esta consideración aquéllos que figuren como tales en el Catalogo Europeo de Residuos (CER).

2.– Jarduera sanitarioak. Hauek izango dira: Ospitaleetakoak, kliniketakoak, erietxeetakoak, oinarrizko laguntzarako zentroetakoak, famili plangintzarako zentroetakoak, zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitario pribatuetakoak, analisi klinikoetako eta ikerketa medikoetako laborategietakoak eta sanitatearekin zerikusia duten gainontzekoak. Dekretu honen ondorioetarako, albaitaritzako laguntza eta esperimentazio zentro eta zerbitzuetako jarduerak ere sanitariotzat joko dira.

3.– Ekoizlea. Hondakinak sortzen dituen edo hondakinon izaeran eta osagarrietan aldaketaren (aldez aurretiko tratamenduak, nahasketak...) bat eragiten duen jarduera sanitarioren titularra den pertsona fisiko edo juridikoa.

4.– Kudeaketa. Hondakin sanitarioei beren ezaugarrien arabera tratamendu egokiena ematera bideratutako operazioen multzoa. Hauek dira operazio horiek: maneiatzea, sailkatzea, biltzea, antolatzea, biltegiratzea, garraiatzea, tratatzea eta deuseztatzea.

5.– Zentro barruko kudeaketa. Jarduera sanitarioak egiten dituzten zentro eta establezimenduen barruan hondakinak kudeatzeko egiten diren operazioak.

6.– Zentroz kanpoko kudeaketa. Jarduera sanitarioak burutzen dituzten zentro eta establezimenduetatik kanpo hondakinak kudeatzeko egiten diren operazio desberdinak; oro har, hondakinok biltzen direnetik aurrera burutzen direnak; besteak beste, kanpoko bilketa, garraioa, biltegiratzea, tratamendua eta deuseztapena.

7.– Kudeatzailea. Goiko paragrafoan aipatzen diren zentroz kanpoko kudeaketa-operazioak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak eta, hondakinak tratatzeko edo deuseztatzeko operazioak jarduera sanitarioak egiten dituzten zentro edo establezimenduetan egiten direnean, baita horiek egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak ere.

8.– Auto-kudeatzailea. Zentro barruan hondakin sanitarioak baloratzearen eta ezabatzearen ardura duen kudeatzailea; hau da, nork bere jardun sanitarioan sortutakoak baloratzearen eta ezabatzearen ardura duen kudeatzailea.

9.– Desinfekzioa. Zernahi gai, objektu, material edo produktu bateko mikroorganismo patogenoak ezabatzeko prozesua. Aipatutakook hondakin izan ala ez gorabehera.

10.– Esterilizazioa. Objektu, material edo produktu bateko germen guztiak ezabatzeko prozesua. Aipatutakook hondakin izan ala ez gorabehera.

*3. artikulua.–* Hondakin sanitarioen sailkapena.

Dekretu honen ildotik hondakin sanitarioak ondoren aipatzen diren taldeetan sailkatuko dira eta Hondakinei buruzko Europako Katalogoan ezarritakoaren

2.– Actividades sanitarias. Las correspondientes a hospitales, clínicas y sanatorios centros de atención primaria, centros de planificación familiar, y otros centros, servicios y establecimientos sanitarios, laboratorios de análisis clínicos y de investigación médica, centros o unidades de los servicios de prevención, y cualquier otra que tenga relación con la sanidad. A efectos del presente Decreto, serán consideradas, de igual forma, actividades sanitarias las correspondientes a centros y servicios de asistencia y experimentación veterinaria.

3.– Productor. Cualquier persona física o jurídica titular de una actividad sanitaria que produzca residuos o que efectúe operaciones de tratamiento previo, de mezcla, o de otro tipo que ocasionen un cambio de naturaleza o de composición de esos residuos.

4.– Gestión. Conjunto de operaciones encaminadas a dar a los residuos sanitarios el tratamiento más adecuado en función a sus características. Comprende las operaciones de manipulación, clasificación, recogida, acondicionamiento, almacenamiento, transporte y tratamiento de valorización o de eliminación.

5.– Gestión intracentro. Comprende las diferentes operaciones de gestión de residuos que se llevan a cabo en el interior de centros o establecimientos en los que se desarrollan actividades sanitarias.

6.– Gestión extracentro. Comprende las diferentes operaciones de la gestión de los residuos que se desarrollan en el exterior de centros o establecimientos en los que se realizan actividades sanitarias, y con carácter general, las desarrolladas a partir de la recogida de los mismos, incluyendo recogida exterior, transporte y tratamiento de valorización o de eliminación.

7.– Gestor. Persona física o jurídica que realiza las operaciones de gestión extracentro contempladas en el apartado anterior, y las de tratamiento de valorización o de eliminación cuando se realicen en centros o establecimientos en los que se desarrollan actividades sanitarias.

8.– Auto-gestor. El gestor que realiza las operaciones de tratamiento de valorización o de eliminación de residuos sanitarios en la gestión intracentro, exclusivamente para los residuos por él producidos en la actividad sanitaria de la que es titular.

9.– Desinfección. Proceso mediante el cual se eliminan los microorganismos patógenos de cualquier sustancia, objeto, material o producto, tenga o no la consideración de residuo.

10.– Esterilización. Proceso mediante el cual se eliminan todos los microorganismos de cualquier sustancia, objeto, material o producto, tenga o no la consideración de residuo.

*Artículo 3.–* Clasificación de los residuos sanitarios.

A efectos del presente Decreto los residuos sanitarios quedan clasificados en los grupos que a continuación se relacionan, debiendo ser codificados conforme

arabera kodifikatuko. Halaber, hondakin sanitario arriskutsuak Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea gauzatzeko araudia onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretua aldatzen duen ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera kodifikatuko dira.

1.– I. taldea. Hiri- edo udal-hondakinak.

Jarduera sanitarioen ondorioz sortuak izanagatik ere, arriskutzat jotzen ez direnak eta kudeatzeko orduan gainontzeko hiri- eta udal-hondakinen baldintza ber-berak sortzen dituztenak. Besteak beste, hauek dira: sukaldeko eta elikagaietako hondakinak, zahar-egoitzetako hondakinak, papera, kartoia, bulego eta tailerretako materialak, lorategiko hondakinak, infekziorik sortzen ez dutelako biltzean eta ezabatzean betebehar berezirik eskatzen ez duten hondakinak (bendak, igeltsuak, pixoihalak, izarak, erabili eta botatzeko arropa...) eta II. eta III. taldeetan jasota ez den hondakin oro.

2.– II. Taldea. Hondakin sanitario espezifikoak.

Hondakin hauek jarduera sanitarioen ondorioz sortuak dira eta berariazko kudeaketa eskatzen dute, hala zentroen barruan nola kanpoan kudeaketaren etapa guztietan.

Talde honen barruan hauek sartzen dira:

a) Hondakin infekziosoak, dekretu honetako I. eranskinean aipatzen diren patologietatik sortutakoak, alegia.

b) Agente infekziosoen kultiboak eta erreserbak eta horiekin kontaktuan egondako material botagarria (isuri laminarreko kanpaietako eraginkortasun handiko iragazkiak barne).

c) Agente biziak edo motelduak dituzten txertoak.

d) Anatomia hondakinak; baldin eta beren tamainagatik ez badira sartzen Hildakoen Polizia Sanitarioari buruzko Araudiaren aplikazio eremuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan gorputzak eta gorpuzkiak garraiatzeko osasunbide baldintzak ezartzeko urriaren 6an emandako 267/1992 Dekretuan.

e) Hondakin zorrotz eta ziztakariak.

f) Gorputzeko fluidoak, odola eta hemoderibatuak, itxura likidoan edo ontzietan, 100 ml-tik gorako kantitateetan.

g) Animalien hondakin infekziosoak edo I. eranskinean aipatzen diren patologiak eragiten dituzten agente infekziosoekin inokulatuak, gorpuak, anatomia hondakinak eta horien estabulaziotik sortutako hondakinak.

3.– III. taldea. Hondakin kimikoak eta berariazko araudien bitartez erregulatutako gainontzeko hondakinak.

a lo dispuesto en el Catálogo Europeo de Residuos (CER). Asimismo, los residuos sanitarios peligrosos se codificarán conforme a lo establecido en el Real Decreto 833/1988, de 20 de julio por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986, de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos y en el Real Decreto 952/1997, de 20 de junio por el que se modifica el anterior.

1.– Grupo I. Residuos urbanos o municipales.

Son los residuos generados en actividades sanitarias que no tienen la calificación de peligrosos y que no plantean exigencias diferentes, en cuanto a su gestión, que el resto de los residuos urbanos o municipales. Entre ellos se incluyen residuos de cocina y alimentación, residuos de residencia, papel, cartón, materiales de oficinas y talleres, residuos de jardinería, residuos cuya recogida y eliminación no es objeto de requisitos especiales para prevenir infecciones (por ejemplo, vendajes, vaciados de yeso, ropa blanca, ropa desechable, pañales) o cualquier otro residuo no incluido en los Grupos II y III.

2.– Grupo II. Residuos sanitarios específicos.

Son los residuos generados por las actividades sanitarias que por el riesgo de provocar infección requieren una gestión diferenciada tanto a nivel del interior de los centros como en el exterior, en todas las etapas de la gestión.

Este grupo comprende:

a) Residuos infecciosos. Son los residuos generados a partir de las patologías relacionadas en el Anexo I del presente Decreto.

b) Cultivos y reservas de agentes infecciosos y material de desecho en contacto con ellos (incluyendo los filtros de alta eficacia de las campanas de flujo laminar).

c) Vacunas con agentes vivos o atenuados.

d) Restos anatómicos que por su entidad no se incluyen en el ámbito de aplicación del Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria, ni en el Decreto 267/1992, de 6 de octubre, por el que se establecen las condiciones sanitarias del transporte de cadáveres y restos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Residuos cortantes y punzantes.

f) Fluidos corporales, sangre y hemoderivados en forma líquida o en recipientes cuando el volumen total recogido en los mismos supere los 100 ml.

g) Residuos de animales infecciosos o inoculados con agentes infecciosos responsables de las patologías incluidas en el Anexo I, cadáveres, restos anatómicos y residuos procedentes de su estabulación.

3.– Grupo III. Residuos de naturaleza química y otros residuos regulados por normativas específicas.

Hondakin hauek kudeatze baldintza bereziak bete behar dituzte sanitatearen eta ingurumenaren ikuspuntutik, hala sortzen dituzten zentroen barruan nola kanpoan.

Talde honetan hauek sartzen dira:

a) Botika zitotoxikoen eta zitostatikoen hondakinak.

b) Erradiologian sortutako hondakin likidoak (finkatzaileak, errebeladoreak eta antzekoak), anatomia patologikoan erabiltzen diren formola, xilenoa eta alkoholak eta endoskopioetan erabilitako glutaraldehidoa.

c) Jarduera sanitarioetako berezko hondakinak izan arren, horietan sortzen diren bestelako hondakin arriskutsuak, hala nola, transformadore zaharrak, erabilitako olioak, disolbatzaileak, baztertutako gai kimikoak eta antzekoak.

d) Paragrafo honetako beste idatz-zati batzuetan zehaztutakoez besteko baztertutako botikak.

e) Hondakin erradioaktiboak.

f) Hildakoen Polizia Sanitarioari buruzko Araudiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan gorputzak eta gorpuzkiak garraiatzeko osasunbide baldintzak ezartzeko urriaren 6an emandako 267/1992 Dekretuaren arabera entitate nahikoa duten gorpuzkiak.

4.– Zenbait taldetako hondakin sanitarioen nahasketa diren hondakinak.

Jarduera sanitarioaren ezinbesteko ondorio diren zenbait taldetako hondakin sanitarioen nahasketa diren hondakinak ondoko izaera izango dute:

a) Hondakin erradioaktiboak nahasian dituzten hondakin sanitarioak hondakin erradioaktibo izaera izango dute.

b) Botika zitotoxikoak edo zitostatikoak eta botika horiek prestatzean edo botikokin batera (isuri laminarreko kanpaietako eraginkortasun handiko iragazkiak barne) egon diren materialak nahasian dituzten hondakin sanitarioak hondakin zitotoxiko edo zitostatiko izaera izango dute.

c) Aurreko bi idatz-zatietan adierazitakoez besteko hondakin sanitario kimikoak, II. taldeko hondakinak badituzte (esaterako, formolean edo beste gai kimikoren batean kontserbatutako gorpuzkinak) II. eta III. taldeko hondakin izaera izango dute.

*4. artikulua.–* Kanpo gelditzen direnak.

III. taldekoak izan eta jarraian aipatzen diren hondakinak dekretu honetan zehazten den araubide juridikotik kanpo geldituko dira:

a) Hondakin erradioaktiboak, horiek Enpresa Nacional de Residuos Radiactivos SA (ENRESA) enpresa sortzeko uztailaren 4an emandako 1522/1984 Errege De-

Son aquellos residuos sujetos en su gestión a requisitos especiales, desde el punto de vista sanitario y medioambiental, tanto dentro como fuera del centro sanitario que los genera.

Este grupo incluye:

a) Residuos de medicamentos citotóxicos y citostáticos.

b) Residuos líquidos (fijadores, reveladores o similares) generados en radiología así como el formol, xileno y alcoholes utilizados en anatomía patológica y el glutaraldehído utilizado en endoscopias.

c) Residuos peligrosos que pudiendo generarse en actividades sanitarias no son específicos de las mismas, tales como transformadores fuera de uso, aceites usados, disolventes, productos químicos desechados o similares.

d) Medicamentos desechados distintos de los especificados en otros apartados de este epígrafe.

e) Residuos radiactivos.

f) Restos humanos de suficiente entidad, de acuerdo con el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria y con el Decreto 267/1992, de 6 de octubre, por el que se establecen las condiciones sanitarias del transporte de cadáveres y restos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.– Residuos sanitarios consistentes en mezcla de residuos sanitarios de varios grupos.

Aquellos residuos sanitarios que como consecuencia imprescindible o necesaria de la actividad sanitaria sean una mezcla de residuos sanitarios de varios grupos, tendrán la siguiente consideración:

a) Los residuos sanitarios que incluyan residuos radiactivos tendrán la consideración de residuos radiactivos.

b) Los residuos sanitarios que incluyan residuos de medicamentos citotóxicos o citostáticos y todo el material utilizado en su preparación o en contacto con los mismos (incluyendo los filtros de alta eficacia de las campanas de flujo laminar) tendrán la consideración de residuos citotóxicos y citostáticos.

c) Los residuos sanitarios de naturaleza química distintos de los señalados en los dos apartados anteriores y que incluyan residuos del Grupo II (como por ejemplo, los restos anatómicos conservados en formol u otro producto químico), tendrán simultáneamente la consideración de residuos de los Grupos II y III.

*Artículo 4.–* Exclusiones.

Quedan excluidos del régimen jurídico contemplado en el presente Decreto los siguientes residuos del Grupo III:

a) Los residuos radiactivos, que se gestionarán de conformidad con el Real Decreto 1522/1984 de 4 de julio de creación de la Empresa Nacional de Residuos

kretuaren eta aplikagarri zaizkien gainerako araudien arabera kudeatuko baitira.

b) Tamaina handiko gorpuzkiak, horiek Hildakoen Polizia Sanitarioari buruzko Araudiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan gorpuak eta gorpuzkinak garraiatzeko osasunbide baldintzak ezartzeko urriaren 6an emandako 267/1992 Dekretuaren arabera kudeatuko baitira.

II. KAPITULUA
ZENTRO BARRUKO KUDEAKETA

*5. artikulua.–* Baldintza orokorrak.

1.– Hondakin sanitarioak kudeatzean, gutxiagotzeari, asepsiari, kaltegabetasunari eta bereizteko era egokiari buruzko irizpideak beteko dira; era horretan gaixoak, langileak eta bisitariak lesionatzeko eta infektatzeko arriskuari itzuriz. Halaber, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia ere beteko da.

2.– Hondakin desberdinak biltzen dituzten ontziak nahiz poltsak aldi baterako gorde behar badira, biltegiratze hori horretarako baino erabiliko ez diren lokaletan egingo da, produkzio-guneetatik hurbil. Betebehar hori ez da bete beharko ondokoren bat bada: 3.1 artikuluan jasotako hondakinak (hiri- edo udal-hondakinak), 3.2 artikuluko c) eta e) idatz-zatietan jasotako hondakinak (Agente biziak edo motelduak dituzten txertoak eta Hondakin zorrotz eta ziztakariak) eta 3.3 artikuluko d) idatz-zatian jasotakoak (baztertutako botikak). Era berean, ebakuntza gelarik gabeko eta hileko II. taldeko 100 kilo hondakin baino gutxiago sortzen duten osasun zentroek ere ez dute paragrafo honen hasieran zehaztutakoa bete beharko. Dena den, hondakin kopuruarena egiaztatu egin beharko da Hondakin Sanitarioen Kudeatze Plana onartzean. Azken hauetarako behin-behineko biltegi horiek ahalik eta hurbilen egongo dira ekoizpen guneetatik. Biltegiok, ordea, ez dute zertan izan horrexetarako baino ez; hau da, biltegi horietan garbigarriak ere bildu ahal izango dira. Dena den, garbi eta desinfektaturik zainduko dira.

3.– Poltsetan bildutako hondakinak biltegira behin betiko eraman arte; hau da, behin-behineko biltegiratzerako eta garraiorako edukiontzi bereziak izango dira. Edukiontziok, erabilera bakarrekoak baino ez badira, egitura zurruna izango dute eta erraz garbitu eta desinfektatu ahal izango dira. Behin-behineko biltegiratzerako lokal guztiak eta edukiontziak egunero garbitu eta desinfektatuko dira.

4.– Hondakin sanitarioak, gutxienez, 12 ordurik behin garraiatuko dira behin betiko biltegira. Hamabi ordurik behin garraiatze hori ez da beharrezkoa izango, hondakinak 3.2 artikuluko c) eta e) idatz-zatietan eta 3.3 artikuluko d) idatz-zatian zerrendatutakoak badira. Ebakuntza gelarik gabeko eta hileko II. taldeko 100 kilo hondakin baino gutxiago sortzen duten osasun zentroek nahikoa izango dute hondakinok egunean behin garraiatzea.

Radioactivos, S.A.(ENRESA) y demás normativa de aplicación.

b) Los restos humanos de suficiente entidad, que se gestionarán de acuerdo con el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria y con el Decreto 267/1992, de 6 de octubre, por el que se establecen las condiciones sanitarias del transporte de cadáveres y restos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

CAPITULO II
GESTIÓN INTRACENTRO

*Artículo 5.–* Condiciones generales.

1.– Todas las etapas de la gestión de los residuos sanitarios deberán atender a criterios de minoración, asepsia, inocuidad y correcta separación, evitando los riesgos de lesiones e infecciones de los pacientes, personal y visitantes y con cumplimiento de la legislación sobre prevención de riesgos laborales.

2.– En los supuestos en los que se efectúe almacenamiento intermedio de los recipientes o bolsas conteniendo los diferentes tipos de residuos, éste se realizará en locales de uso exclusivo en zonas cercanas a las áreas de producción. Se exceptúa de este requisito a los residuos del artículo 3.1 (residuos urbanos o municipales), a los contemplados en las letras c) y e) del artículo 3.2 (vacunas con agentes vivos o atenuados; residuos cortantes y punzantes) y a los de la letra d) del artículo 3.3 (medicamentos desechados), así como a aquellos centros sanitarios sin bloque quirúrgico y con una producción inferior a 100 kg/mes del resto de residuos del Grupo II, extremo éste a verificar en el trámite de aprobación del correspondiente Plan de Gestión de Residuos Sanitarios. En estos supuestos el local de almacenamiento intermedio se localizará en la zona más cercana posible a las áreas de producción, no siendo preciso que su uso sea exclusivo, admitiéndose como uso compatible el almacenamiento de productos y útiles de limpieza, y debiendo mantenerse en buenas condiciones de limpieza y desinfección.

3.– Se dispondrá de contenedores destinados tanto al almacenamiento intermedio como al transporte hasta el almacenamiento final de aquellos residuos recogidos en bolsas. Dichos contenedores, cuando no sean de un solo uso, serán de estructura rígida y de fácil limpieza y desinfección. Tanto los locales destinados al almacenamiento intermedio como los contenedores citados, se limpiarán y desinfectarán diariamente.

4.– El traslado de los residuos sanitarios hasta la zona de almacenamiento final del centro se llevará a cabo con una periodicidad máxima de 12 horas. Esta periodicidad no será necesaria para los residuos contemplados en las letras c) y e) del artículo 3.2 ni para los de la letra d) del artículo 3.3. Para aquellos centros sanitarios sin bloque quirúrgico y con una producción inferior a 100 kg/mes del resto de residuos del Grupo II dicha periodicidad podrá ser diaria.

Garraioa behin-behineko biltegiratzerako erabilitako edukiontzietan egingo da, zentroak berak zehaztutako eta behar bezala seinaleztatutako zirkuituetatik eta pertsona gutxien dabilenean.

5.– Hondakin sanitarioak sortzen dituzten jarduera sanitarioak burutzen dituzten zentroek eta establezimenduek lokal bat izango dute II. eta III. taldeetako hondakinon azken biltegiratzerako. II. taldeko hondakinak poltsetan jaso badira, artikulu honetako 3. paragrafoan zehaztutako moduko edukiontziak paratu beharko dira. Biltegiok jarduera sanitarioa egiten den lekutik aldenduta eta egoki jakinarazita eta aireztatuta egongo dira eta debekatuta izango dute bertara sartzea baimenik ez duten pertsonek.

Gainera, ospitaleetan, kliniketan, erietxeetan, oinarrizko laguntzarako zentroetan, famili plangintzarako zentroetan, ikerketa medikoetako laborategietan eta albaitaritzako esperimentazio-zentroetan, lokal horiek horretarako baino ez dira erabiliko. Horretaz gain, suteetatik babesteko finkatutako mekanismoak ere izango dituzte eta, paramentuei dagokienez, material iragazgaitzez eginak izango dira eta erraz garbitu eta desinfektatu ahal izango dira. Garbitze eta desinfektatze lanak egunero egingo dira.

6.– Betebeharrok ezin zaizkio aplikatu aurreko lerroaldean zehaztutako jarduera sanitarioetarako lokalei, 3.2 artikuluko c) eta e) idatz-zatietan eta 3.3 artikuluko d) idatz-zatian zehaztutako hondakinak jasotzen dituzten biltegiei eta ebakuntza gelarik gabeko eta hileko II. taldeko 100 kilo hondakin baino gutxiago sortzen duten osasun zentroetako behin betiko biltegiei. Horietan, tokiok jarduera sanitarioa egiten den lekutik aldenduta egongo dira. Biltegiok, ordean, ez dute zertan izan horrexetarako baino ez; hau da, biltegi horietan garbigarriak ere bildu ahal izango dira.

Ur-puntuak, hustubideak eta suteetatik babesteko sistemak izatea ere ez da beharrezko izango, baldin eta gainerako jarduerei egokitutako sistemak egokiak eta eragingarriak badira biltegian suterik egonez gero. Biltegiak egunero garbitu eta desinfektatuko dira.

7.– Zentroz kanpoko kudeaketa egin behar denean, hondakinak azken biltegiratzeko lokaletatik jasoko dira. Beraz, guztiz debekatuta dago ontziak nahiz poltsak kanpoan uztea.

8.– Ez da artikulu honetan aipatutako salbuespenik egingo, baldin eta eskumena duen aginte sanitarioak

Este traslado se llevará a cabo en los contenedores citados para el almacenamiento intermedio, por circuitos establecidos por el propio centro, debidamente señalizados, y en momentos de mínima circulación de personas.

5.– Los centros o establecimientos en los que se desarrollan actividades sanitarias generadoras de residuos sanitarios deberán disponer de un local para el almacenamiento final de los residuos de los Grupos II y III. En el supuesto de que los residuos del Grupo II hayan sido recogidos en bolsas deberán acondicionarse en contenedores con las características reflejadas en el apartado 3 del presente artículo. Dichos locales deberán estar separados de las zonas en las que se realice la actividad sanitaria, estar correctamente señalizados y ventilados y con acceso limitado a personas autorizadas.

Asimismo, en los hospitales, clínicas, sanatorios, centros de atención primaria, centros de planificación familiar, laboratorios de investigación médica y centros y servicios de experimentación veterinaria, los citados locales serán de uso exclusivo para tal fin y dispondrán de los mecanismos establecidos de protección frente a incendios. Sus paramentos serán de materiales impermeables y de fácil limpieza y desinfección, operaciones que se realizarán diariamente.

6.– Las mencionadas características no son aplicables a aquellos locales de las actividades sanitarias a las que se refiere el párrafo anterior, cuando estén destinados exclusivamente al almacenamiento de residuos contemplados en las letras c) y e) del artículo 3.2 ó de la letra d) del artículo 3.3 ni a los locales de almacenamiento final de aquellos centros sanitarios sin bloque quirúrgico y con una producción inferior a 100 kg/mes del resto de los residuos del Grupo II. En estos casos, dichos locales deberán estar separados de las zonas en las que se realice la actividad sanitaria, no siendo preciso que sean de uso exclusivo, admitiéndose como único uso compatible el almacenamiento de productos y útiles de limpieza.

Tampoco será necesario que tengan puntos de agua, sumidero, ni sistemas de protección frente a incendios, siempre que los sistemas adoptados para el resto de la actividad permitan su utilización rápida y eficaz en el supuesto de producirse un incendio en el local de almacenamiento. Se mantendrán en correctas condiciones de limpieza y desinfección, operaciones que se realizarán con una frecuencia diaria.

7.– La recogida de los residuos sanitarios para su gestión extracentro se realizará desde los locales destinados al almacenamiento final, quedando prohibido, en todo caso, el depósito de las bolsas o recipientes a la intemperie.

8.– No procederá la aplicación de las excepciones contempladas en este artículo cuando, a juicio de la au-

hondakin sanitarioei osasun publikorako arriskutsuak direla irizten badie.

*6. artikulua.*– I. taldeko hondakinen kudeaketa.

I. taldeko hondakinak poltsa beltzetan jasoko dira. Poltsa horien gutxieneko galga 200ekoa izango da, UNE 53-147-85 araua bete behar dute eta hiri- eta udal-hondakinei buruzko araudiaren arabera antolatu eta bilduko dira. Halaber, bilketa selektiboa egitera behartuko da.

*7. artikulua.*– II. taldeko hondakinen kudeaketa.

1.– II. taldeko hondakinak jatorrian sailkatu eta bereiziko dira eta poltsa nahiz ontzi zurrun edo erdizurrunetan jasoko dira. Poltsa eta ontzi horiek honelakoak izango dira:

– Erabilera bakarrekoak.
– Guztiz estankoak.
– Opakoak.
– Itxigailu hermetikodunak, poltsa eta ontzi erdizurrunen kasuan salbu, horiek ustekabean ireki ezin den itxigailua izango baitute.
– Zama handia eusteko modukoak.
– Aseptikoak kanpoko aldetik.
– Suntsitzean igorpen toxikoak ekidingo edo gutxienak izango direla bermatzen duten materialez eginak.

2.– II. taldeko hondakinak poltsetan jasotzen badira, poltsa horiek gorriak izango dira, 200eko galga izango dute gutxienez eta UNE 53-147-85 araua beteko dute.

3.– Hondakin zorrotz eta ziztakariak ontzi zurrun, iragazgaitz, zulaezin eta erabilera bakarrekoetan jarriko dira artikulu honetako 1. paragrafoan aipatzen diren poltsa nahiz ontzietan sartu baino lehen.

4.– II. taldeko fluido biologikoetatik, odoletik edo hemoderibatuetatik datozen hondakin likidoak ontzi zurrun, iragazkaitz eta hermetikoetan jarriko dira artikulu honetako 1. paragrafoan aipatzen diren poltsa nahiz ontzietan sartu baino lehen.

5.– II. taldeko hondakinetarako ontzietan «Hondakin arriskutsuak» dioen anagrama bat jarriko da, Dekretu honetako II. eranskinean hondakin biokutxatuetarako eskaintzen den logotipoarekin batera. Logotipoa, hori-naranja atzealde gainean, beltza eta, gutxienez, 10 x 10 cm-koa izango da. Era berean, etiketak ondokoak jasoko ditu: Hondakinen Europako Katalogoko kodea (CER kodea), hondakinak identifikatzeko kodea eta 833/1988 Errege Dekretuko 13 eta 14. artikuluek jasotako datuak. Identifikazio kodeari dekretu honetan eta 952/1997 Errege Dekretuan zehaztutakoak gehituko zaizkio, baita kutsatzeko arriskua dutenen (H9) ezaugarria ere. Zentro barruko biltegiratzean erabiltzen diren edukiontzietan ere ontzietako anagrama berbera jarriko da. Horrez guztiaz gain, autoklabez maneiatzen

toridad sanitaria competente, los residuos sanitarios presenten especiales características de peligrosidad o de riesgo para la salud pública.

*Artículo 6.*– Gestión de los residuos incluidos en el Grupo I.

Los residuos incluidos en el Grupo I se recogerán en bolsas de color negro, con galga mínima 200, y que cumplan la norma UNE 53-147-85, y se dispondrán y recogerán de acuerdo con la normativa específica para los residuos urbanos o municipales, estableciéndose obligatoriamente su recogida selectiva.

*Artículo 7.*– Gestión de los residuos incluidos en el Grupo II.

1.– Los residuos del Grupo II deben ser clasificados y separados en origen, siendo su recogida en bolsas o en recipientes rígidos o semirrígidos, que cuenten con las características siguientes:

– Un solo uso.
– Estanqueidad.
– Opacidad.
– Cierre hermético, salvo en bolsas y recipientes semirrígidos, los cuales tendrán un cierre que impida la apertura accidental.
– Resistencia a la carga.
– Asépticos en el exterior.
– Composición tal que garantice que en su destrucción se eviten o minimicen emisiones tóxicas.

2.– Cuando los residuos del Grupo II se recojan en bolsas, deberán ser de color rojo, con galga mínima 400, y que cumplan la norma UNE 53-147-85.

3.– Los residuos cortantes y punzantes previamente a su introducción en las bolsas o en los recipientes contemplados en el apartado 1 de este artículo, se depositarán en envases de un solo uso, rígidos, imperforables e impermeables.

4.– Los residuos líquidos correspondientes a fluidos biológicos, sangre y hemoderivados incluidos en el Grupo II, previamente a su introducción en las bolsas o en los recipientes indicados en el apartado 1, se depositarán en envases rígidos, impermeables y herméticos.

5.– Los recipientes conteniendo residuos del grupo II se rotularán con un anagrama que indique «bio-riesgo» y contarán con el pictograma internacional de los residuos biocontaminados, representados en el Anexo II de este Decreto y dibujados en negro sobre fondo amarillo-naranja, donde el tamaño de la etiqueta deber tener como mínimo las dimensiones de 10 x 10 cm. Se etiquetarán con el código del Catálogo Europeo de Residuos (código C.E.R.), el código de identificación del residuos, y demás datos contenidos en los artículos 13 y 14 del Real Decreto 833/1988. El código de identificación se cumplimentará conforme a lo dispuesto en el Real Decreto 952/1997 y en el presente Decreto, y contendrá la característica de peligrosidad de infeccioso (H9). Asimismo, los contenedores utilizados en

diren hondakin sanitarioei adierazle kimiko bat gehituko zaio autoklabado prozesuak dirauen bitartean jarraipena egiteko.

6.– II. taldeko hondakin sanitarioak ezin izango dira 72 ordutik gora biltegiratuta izan, baldin eta horretarako beren-beregiko eta egoki adierazitako hozkailurik ez bada. Hozkailu horrek zero azpitik 4 graduko hozberoari eusteko gai izan behar du. Horrelakorik izanez gero, astebete eduki ahal izango dira biltegiratuta. 3.2 artikuluko c) eta e) idatz-zatietan jasotako hondakinak badira, berriz, 3 hilabetez biltegiratu ahal izango dira, nahiz eta hozkailurik izan ez.

Era berean, ebakuntza gelarik gabeko eta hileko II. taldeko 100 kilo hondakin baino gutxiago sortzen duten osasun zentroei, Hondakin Sanitarioak Kudeatze Plana onartzean, baimena eman ahal izango zaie era horretako hondakinak astebetez izoztu gabe biltegiratzeko; astebete hori, berriz, hilabetera luzatu ahal izango da hozkailua izan eta lerrokada honetan aipatutako ezaugarriak betez gero.

7.– Ez da artikulu honetan aipatutako salbuespenik egingo, baldin eta eskumena duen aginte sanitarioak hondakin sanitarioei osasun publikorako arriskutsuak direla irizten badie.

